


Hautzaro Ikastolako Aldizkaria


TXINPART

1995 Iraila - Abendua - 3. Zenbakia



Txinpartiz





HAURTZARO IKATOLA

SANTO TOMASetako
BANDOA:

Agur ta erdi lehen lehenik.
Azaroaren erdian
txerri, oiloak, ahuntzak, ardiak...
elkartu gara herrian.
Guk dabilzkituen asmo guztiak
hara hemen agirian:
"Santo Tomasak ospatutzeko
ikastolako ferian.

Abenduaren hogeita bata
izango duzu entzuna,
ahart orduko iritsiko da
espero dugun eguna.
Ikastolara hurbiltzen denak
izango duen fortuna!
Ai zer nolako bilera denok
bertan egingo duguna.

Erakusketa ederra eta
erakusleak jatorrak...
Bazter guztiak alaitu nahian
txistuak eta damborak...
presto jarrita eduki beraz
baserritarren atorrak.
Eta kalterik ez beza egin
ogi tarteko txistorrak.

Egun horretan alde batera
konprometu ta lasuak
ez dira beti suertatzen eta
era hortako kasuak
Ikastolako irakasleak,
ikasle ta gurasuak
San Tomasetan gure ferira
zuzendu zuten pausuak".

GARESTI, GARESTI

FRUDISK, compact disc-ak.

- Zeren bila habil mutil?
- AC/DCen diska berria ba al dauka-zue?
- Noski. Ikus ezak heavy-rock jartzen duen sailean.

Def leppard, Kiss, Alice Cooper,.....

- Non demonio ote dago nik nahi dudan diska?
- Aizak, mutil, bilatu al duk AC/DCen diska berria?
- Bilatu bai, baina topatu,ordea, ez.
- Agian, "gomendatutako diskak" izeneko sailean zegok.
- Oraintxe noa bertara.

Dendan zortzi sail daude.Gehienek musika gogorak jorratzen dituzte eta diskak ezezik, pasteleria txiki bat ere badago dendaren ixkin batean.

- ¡ Niño! ¡Te he dicho que no toques los caramelos!
- Mamá, còmprama un bollo.
- Mira que eres cabezón; te he dicho que no y punto.


Come on to Bimbocao.

Carlos Vives, Green day, Héroes del silencio, AC/DC.....

- Azkenean, ederki kosta zait diska hau topatzea.

Zortzi bat metro egiten ditut kajeroan dagoen neska poxpolinarengana iristeko.

- Kobra ieza dazu hau mesedez.
- "AC/DC: Ballbreaker", 1 740 pta dira, gazte.
- Joño, Joño; ez dute merke saltzen.
- Zuk zer nahi duzu ba, berri-berriak garesti ordaintzen dira. 1740 pta ateratzen ditu sakeletik, eta diska poltsa batean sartu ondoren, atetik ateratzen da.

**HORRA, HORRA**

Hemen heldu gerade
berri on batekin
gure enbajadore
Olentzerorekin;
guraso zintzo horrek
behar duzu jakin
Eguberritan ere
gaudela zurekin.

Horra, horra
guraso leiala
seme-alaben alde
zure eginahala
jarrai horrela orain
artean bezala
ta ezinak Olentzerok
konpondu ditzala

Aditu zuenean
Jesus jaio zela
lasterka etorri zen
berri ematera;
Gabonetan guk ere
badugu aukera
Euskara zabaltzeko
mundu zabalera.

Horra, horra
andre eta gizon
guraso, haxe esan
gabe ezin egon;
guztioi Eguberri
ta Urte berri on!
Gabonak ongi pasa,
bi mila zorion!

ZUZENDARITZA.



SAN NIKOLAS BEZPERA

Nahiz San Nikolas bezperan abesten eta eskean ateratzeko ohitura galdua izan gure inguruko herri askotan, Oiartzunen, oraindik, mantentzen dela esan dezakegu.

Aurten ere Haurtzaro eta Elizaldeko Haur Hezkuntza eta L.H.-ko Lehen zikloko ikasle eta irakasleak elkartuta lege zaharra betetzen saiatu gara.

Eskerrik asko hau mantentzen laguntzen duzuen guziei zuen intxaur, gaztain, mandarina ... guziengatik.



ELEANIZTASUN GOIZTIARRA

Aurten, eta bileretan adierazi bezala, eleaniztasun goiztiarraren proiektua mar-txan jarri da ikastolan.


Honen helburua lau urtetik aurrera ingelesa (modu ludiko batean) programan sartzea da.

Proiektu honetan, azken urteotan, hogei-tamarren bat ikastola sartu dira eta emai-

tzak onak izan direnez gure ikastolak ere apostu honi heltzea erabaki zuen joan den ikasturte bukaeran.

Egunero ordu erdiko saioak izaten dituzte eta aurtengoz lau urtekoen gelakoak hasi dira.

WELCOME AND CHEER
UP TO EVERY BODY!!



FUNTZIO ANITZETAKO GELA

Gela hau Bigarren Hezkuntzak planteatzen duen erronkari erantzuteko asmoz eta baliabide pedagogiko desberdinak (eta heziketa arruntak eskaini ezin dituenak) behar dituzten ikasleekin lanean jarduteko sortu da. Zehatzago hitzeginez: Funtzio anitzeko gelaren helburua, ikasketa praktiko eta ludikoen bitartez, ikasle hauek, bere bizitzan moldatu ahal izateko, edukiz eta giza baliabidez jaztea da.

Sukaldaritza izango da ardatz iraunkorra eta honen ondoan tailer desberdinak sortzen eta aldatzen joango dira: elektrizitatea, eskulanak, egurra, heziketa biala, e.a.

Sukaldean, menu desberdinak ikasteaz gain, motrizitate fina, matematika eta hizkuntzaren erabilpen praktikoa, eta zehar lerroen inguruko lana bideratuko da. Arlo desberdin hauetako edukiek (kontzeptuak, jarrerazkoak eta prozedurazkoak) proiektu oso bat osatuko dute iharduera bakoitzean. Berdin gertatuko zaigu beste

HAURTZARO INFORMATZEN

aldameneko tailerrekin (elektrizitatea...).

Bestalde, tailer hauek ikastetxetik kanpoko beste hainbat profesionalekiko (sukaldari, elektrizista...) harreman bide izango dira.



PSIKOMOTRIZITATE SAIOAK

Iritsi da psikomotrizitate saioaren eguna. Irrika dago! Galtzerdiak, oinetakoak eta traba egingo dieten jertseak kendu eta salara sartu dira.

Bankoetan exeri! Han irakasleak (psikomotrizistak) ongi etorria ematen die. Zertan jolastuko zarete? Bakoitzak bere desioak eta nahiak adierazten ditu.

Irakasleak espazioa aurkezten die:

Reaseguratzeko unea

Sensomotor txokoa

Sinboliko txokoa

Errepresentazio unea (marrazkia, eraiketak, plastilina)

Eta azken agurrarako bankuetara.

"Hemen, salan, nahi duzunetara jolas zintezkete, gure ahalmenak frogatzeko aukera dago. ZU! izateko lekua da eta ZU ZAREN bezala onartuko zaitut, eta behar duzunean NI hemen nago laguntzeko prest, beldurtzen zarenean, urduri bazaude, triste



bazaude, bakarrik sentitzen zarenean ...

Eta saioa bukatu da. Zer moduz pasa duzue? Badakit gauza asko egin nahi izan dituzuela eta motz egin zaizue! Baina lasai. Datorren astean berriro ere ZUENTZAKO SALA PRESTATUKO DUGU eta gaur bezala jolas zintezkete.

Agur gela nagusia!!

GABONETAN DENOK KANTARI

Iritsi zaizkigu gabonak eta ohitura jarraituz, Abenduak 24ean abestera aterako gara ikastolako haur guztiak.

Ohitura hau ez da ikastolakoa bakarra. Denok parte hartzea bultzatu nahi dugu: Gurasoek, izeba-osabek, aitona-amonek, lehengusuek ... hau da herri guztiak.

Festa honetan parte hartzera animatzen bazarete, azaldu ikastolara baserritar jantzirik eta ezarriak prestatu ondoren, abestera aterako gara!!

ERAIKUNTZA BERRIAK

1.-Sarrerako Harrera Gela

Aspaldian txukuntzeko zegoen ataria egokitzearekin batera, ikastolak behar zuen harrera gela eraiki dugu. Administrazioa eta ikasgelak nolabait bereiziz, eta bereziki gurasoek harrera leku bat izan dezaten.

2.- Kalefakzio berriak

Edifizio berriko kalefakzioa ez zegoela behar bezala, eta berria ipini dugu, gela guztietara beroa hel dadin.

3.- Terraza

Terrazako arazoak oraingoz gainditzeko, honen bi izkinak berriro dira. Erdialdea berriz, Frontoiko teilatua luzatuz estali egin dugu, teilatua egin diogu.



4.- Haur Hezkuntzan

Haur Hezkuntzari begira zenbait berrikuntza burutzen ari gara ikasturte honetan:

- Mobiliario berria.
- Hiru geletan zolu berria.
- Parke txikiaren horniketa.

Egiteko daukenak:

- 4 urteko komun berria.
- Jolas leku-



HAURTZARO INFORMATZEN

ra jaisteko ranpa.

5.- Funtzio Anitzeko Gela

Laguntza berezirako izango den gela berritzea eta hornitzea. Berezi ki sukaldea.

6.- Beste zenbait berrikuntza

- Ikastolako fatxada ezberdinak berri-tu.
- BBBko laborategiaren birmoldaketa.
- Informatika gelako tabike berria.
- Sarreretako pintura artistikoa.
- Sarrera irteerak zaintzeko eta goxa-tzeko, tinbrearen orde z deialdiak musikarekin egin ahal izateko siste-ma horren instalakuntza. Hau orain-dik burutu gabea dago, aztertze pro-zesuan aurkitzen da.



DONOSTIARA IRTEERA

Lehen etapako bigarren zikloko ikasleak, 3. eta 4. mailakoak, Donostiara egin genuen kurtso haserako ibilaldia.

Acuarium-eko arrainak, arrain hezurak, koralak eta itsaontziak ikusi ondoren Gladys enea parkean bazkari eder bat egin genuen.

Egun ederra igaro genuen.





EKINTZA OSAGARRIAK

Ekintza osagarrien alorrean dihardugun komisiokideek Txinparti gure lanen berri eman nahi diogu: gure ekimena Haurtzaro Ikastolak eskaintzen dituen ekintza osagarriak indartzera eta ahal den neurrian zabaltzera bideratua dago. Nola indartu jada martxan dauden ekintzak? Nola jokatu berriekin? Lehenengoari erantzunez gurasoen parte hartzea areagotu eta bideratu nahi dugu, aurretik daudenei beren lana eskertu eta laguntza eskainiz. Bestalde, kontuan hartu behar dugu gurasoen eskarrietan ekintza berri batzuk ere agertu dire-

la: kirol ekintzaz gain, nolabait deitzearren, kultur ekintzak dei genitzakeen batzuk, hain zuzen. Bi lanak uztartu nahian aurtengo ikasturterako proiektu orokorra antolatzen dihardugu une hauetan: aurten, eta urtarritik aurrera, antolatu nahi ditugun kultur ekintzak plastika, antzerkia, dantza garaikidea dira. Eskaintza bereiziki gaur egun ekintzarik jasotzen ez duten mailei begira egin nahi dugu. Hala ere, beste mailetan ere talderen bat antolatuko balitz, eskaerari erantzuteko ahalegina egingo genuke.

Gaiarekin nondik nora gabiltzan nahiko argi agertu dugula iruditzen zaigu. Hori bai, egin nahi dugun bidea ez dadin komisiok honen lan bereizi gisara ulertu eta gaiak planteamendu zabala merezi duenez, Ekintza Osagarrien Komisiokaren egituraketa zabalagoa nola aurrera eraman pentsatzen gabiltza: nola zehaztu gurasoen parte hartzea, nola bideratu zerbitzua... Bitartean, eta Txinpart aldizkariari esker, jaso ezazue gure agurra.



GEHIAGO JAKIN DEZAGUN

JOSTAILUAK

Zein dira gure seme-alabentzat egokienak? Nola aukeratu?

Askotan egiten diogu galdera hau geure buruari. Edozein jostailu-dendatara sartu eta gure seme-alabak telebistan ikusitako jostailu hura nahi dutela esanez hasten direnean, mila zalantza sortzen zaizkigu. Zer egin? Nola jokatu? Erosiz gero, zenbat denboran erabiliko dute erositako opari hori? Ez erostea erabakiz gero... A ze kome-riak. Haurra egun guzia haserreturik bere bizitzako jostailua erosi ez diogulako!

Beno, honetaraino iritsi gabe ere, zein jostailu erosi beharko genieke gure seme-alabei pedagogikoa, hezitzailea izan dadin? Hau da, ez dezagun diru botatze hutsa egin, probetxuzko zerbait baizik?

1.- SERIO HARTZEN AL DUZU?

Ziur asko, haurarentzat, ez dago jostatzea bezain garrantzitsua den borondatezko ekintzarik. Jostatzea ez da denbora pasa bat, joku-jostailuen bidez haurrak bere motrizitatea garatzen du: gorputz osoaren motrizitatea eta koordinaketa; emozioak eta inguruaren ezagutza ere eraikitzen ari da. Era berean besteekin erlaziontzen ikasten ari da.


JOSTAILU HORREK:

2.- ONDO GARATZEN AL DU HAURRA-REN MOTRIZITATEA?

Haurrak bere motrizitatea garatu behar du: eskuak ongi mugitu, hatzak, hankak, lepoa, bizkarra. Gorputza menderatu eta oreka bat lortu.

Honek guztiak bere erritmoan garatzen joan behar du, eta denbora behar du, baina garapen egoki batek bere buruan ziurtasuna izaten lagunduko dio.

Arazo edo muga fisikoak, aldiz, gerora,



ikasteko gaitasuna mugatuko du. Beraz... balio al du jostailu horrek garapen fisikoa eragiteko?

3.- HAURRAREN MUNDU EMOZIONALA ZAITZEN AL DU?


Haurra beldurtu, poztu, entusiasmatu, kikildu, egiten da; maitasuna eta independentzia beharrezko ditu. Besteak bezala izateko, imitatze, benetan gustatzen zaion jokuetan ibiltzeko beharra du. Jostailua berea den zerbait bezala bizitzen du: bere gain botatzen du agresibitatea eta jostailuarekin betetzen du maitatua izatearen beharra.

Jostailua, edo erruz maite du eta ezin da berarengandik banandu, edo gorroto dio eta bota beharra sentitzen du.

Jostailuaren bidez haurrak mundu hobea imajinatzen du. Beraz... zuk aukeratu duzun jostailuak laguntzen al dio honetan?

4.- ADIMENTSUAGOA IZATEN LAGUNTZEN AL DIO?

Adimena nola eratzen den edo nola hobeagotzen den zehatz mehatz oraindik ez badakigu ere, badakigu bere bizitzaren lehenengo aroan haurrak, oinarritzkoak diren zentzumenak garatu eta ahal den gehiena hobetu behar dituela: ikusmena, entzumena, usaimena, dastamena, ukimena eta mugimenduaren zentzumena. Honi esker bere inguruaz hobeto ohartuz joango da. Gainera, gauzak ulertu, analizatu eta ikasitakoa beste egoera batzuetan aplikatzeko gaitasuna handituko du.



GEHIAGO JAKIN DEZAGUN

10

5.- PRODUKTU ONA AL DA?

Hona hemen jostailu kontsumitzaile onaren kodigoan agertu ohi diren adjetiboak: garbiterraza, sendoa, ez toxikoa, kolore politak, aktibitatea bultzatuko duena, merkea, arrisku gabea, zentzumenen sentsazio ezberdinak eragingo dituen, sexista ez dena, irudimena, sormena eragingo dituen; haurraren adin eta ahalmenei egokitu, besteekin elkarrekintza bultzatuko duena, agresibitatea gutxituko duena...

Aholkuak dira eta jostailu bat erosi aurretik egiazta daitezkeen ezaugarriak.

6.- HIZKUNTZ GARAPENA ERRAZTEN AL DU?

Oso baldintza berezia da hau. Haurrak lehenengo jostailua begiratu egiten du, ahoan sartu, erakutsi. Jarraian komunikazioa dator: Jostailua kenduz gero negar egingo du, edo eta lehenengo hitzak erdimintzatuko ditu.

Dena dela, garrantzizkoena zera da: jostailu onak haurra eta heldua elkar-komunikazioan jartzen dituela, haurrari hitzeginarazi egiten dio, beregana hurbilarazten du eta izen bat jartzen dio jostailuari.

Egoera bakoitzak sortutakoak barrea edo poza eragiten du. Jokuari esker haurrak hitzegiten ikasten du.

Jostailu horrek hizkuntza ikastera bultzatzen al du haurra?

7.- BESTEEKIKO HARREMANA ERAGITEN AL DU?

Ondokoekin erlazionatzeko ikasten dugu-

la dio zenbaitek, eta ez guretzat, norberak bizi den gizartean leku bat izan dezan, aintzat hartua izan dadin, onartua eta ondoko lagunarekin ahal den hobekien erlazionatuz bizitzen jakin dezan.



Jostailuak gizarteko eginkizun hau betetzen du. Askotan pertsona heldu bat edo bere adineko norbait etortzen zaionean haurra jostailua konpartitzen saiatuko da, jaso, gorde, erakutsi eta goraipatuko egingo du.

EROSTEKO GARAIA

- Kontuz telebista iragarkietako mezuekin.
- Askotan zenbat eta "sofistikatuagoa" orduan eta hondatzeko errazagoa, erori edo ez bada behar bezala erabiltzen.
- Ez ditzala haurraren ahalmenak mugatu: mugitu, manipulatu...
- Adinari dagokiona izan dadila. Lehenago edo beranduago eman ez da zoriontsuagoa izango.
- Telebistan ikusten duena epaitzeko gai ez denez geuk egin dezagun kritika hori, beti ere, ahal den neurrian, bere ilusioa mantenduz.
- Erne ekintza oso mekanikoak egina-razten dituzten jostailuekin.
- Ez diezaiegun "guk eduki ez genuena" erosi, haurraren adinak eta heldutasunak eskatzen duena baizik.
- Jostailu soilak askotan sormena eragiten du. Beraiek bere jostailuak egitea ere ez legoke gaizki.
- Ez dezagun neska eta mutilen arteko jostailuekin diferentziarik egin.
- Helduak ez du jostailua ezarri behar, haurraren eskaera bideratu baizik.
- Agresibitatea, guda, arriskua duten jostailuak baztertu behar ditugula argi dago, baina estereotipo eta jarrera hauek gure gizartetik ere bazter ditzagun.


Eta gogoratu oparirik onena BERAREKIN JOLASTEKO TARTETXO BAT eskaintzea dela. -

GEHIAGO JAKIN DEZAGUN





GU ERE KAZETARI



XABIER HARREGUIREKIN ELKARRIZKETA:

Xabier Harreguy Albisu gure ikastola honetako ikaslea izan da 1980 urteaz geroztik. Bere ikas ibilbidea bere gorputzak eraman duenaren antzekoa izan da: gero eta altuago, gero eta altuago. Horregatik 1995-96 ikasturtean UBI Orereta Ikastolan bukatu berria duen honetan berari elkarrizketa bat egitea bururatu zaigu.

Tx - *Nola joan da zure noten eboluzioa?*

Xabier - OHora begira jarrita ikasle arrunta izan nintzen eta ateratzen nituen notak normal xamarrek ziren. BBBn hasita lehenengoan izan zirela okerrenak esan behar. Gero zenbat eta gorago orduan eta hobeak ateratzen joan naiz. Azkenean UBI n matrícula eman didate eta datorren urterako edozein ikasketetan matrícula doan izango dut. Esan beharra dago ikasi nahi duzun karreraren baitan batz besteko nota ezberdina eskatzen dizutela eta notak baduela bere garrantzia.

Tx - *Konta egiguzu nola egin duzun azkenean matrícula horretara iristeko. Zer sekretu-edo izan duzu?*

Xabier - Gogoratzen naizenekoaz esan, 8. mailan azkeneko ebaluaketan algebrako azterketa ez nuela gaintitu ez nuelako zertaz zihoan ulertzen. Gero errekuuperaketarako zer bide ibili behar zen konturatu nintzen eta zer logikaz jokatu behar nuen konturatu nintzen eta aia aprobata nuen. Orduan konturatu nintzen ulertzea garrantzitsua zela.

Tx - *Nola ikusten duzu orain BBB?*

Xabier - Esan beharra daukat ikasi-eta notak ateratzen direla. Fotokopiatuz ez; ententituz. Guztia hitzez hitz ikastea ia ulertu ere gabe, benetan zaila iruditzen zait. Baina ulertzen ahaleginduz lana askoz arianagoa bihurtzen da. BBBn lan pertsonal ugari egiten dela ere esan dezaket.

Serio hartuz gero prestakuntza ona ematen dute eta nota onak ateratzen dira. Liburuak hartu eta fotokopiatze hutsak ez du aurre- rapenik ekartzen. Liburu askoren informazio laburtzeak, garrantzitsuena zer den aukeratzeak... ikasketa guztietarako bide bat ematen dizu. Honetan ere inportanteena entenditzea da. Zientzietan haseratik ulertzeak bata bestearekin lotzeko aukera ematen dizu. Lan pixkat eginez gero, eta ulertu den hori jartzen dizkizuten problematara aplikatzen jakinez gero, lan gehiena egina dago. Hala ere, esan beharra dago aplikatzen jakiteko aurretik lana egin beharra dagoela.

Tx - Nola bizi izan duzu UBI?

Xabier - BBBn baino lan gehixeago egin behar da. Entenditzea gehixeago kostatzen da, gauzak konplikatu egiten direlako. Baina dena iguala da: azkenean entenditzen jakin behar da. Klaseetan dena kopiatze hutsarekin ez da ezer aurreratzen, gero azkeneko egunetan ikasten hastean ez zarelako ezertaz enteratzen. Nola ez duzun lana zeorrek egin, edo bestela esan da dena irakasleak egin duenez, zu galdia aurkitzen zara. Aurrean daukazu horrek ez dakizu zer esan nahi duen. Hobe da egunean emandakoa zuzenean ongi ulertzea ta gero etxera joan eta ariketa denak ez egin arren batzuk behintzat egitea eta demostratzea zure buruari ulertutakoa aplikatzen badakizula. Gero examinetara iritsitakoan ikasi eta aplikatzen baldin badakizu, examina ez zaizu gaizki aterako.

Tx - Beno. Konturatu gara zure ikas-teknologia zorrotza dela. Zer proposamen egingo zenieke hemen, Haurtzaro Ikastolan, dabiltzan ikasleei?

Xabier - Lehenengo, zerbait ez baduzue ulertzen, galdetu beti. Garrantzitsuagoa da ulertzea memorizatzea baino. Bestela dena memorizatu behar duzu; oinarritzakoa eta lastoa bereizi behar dira eta horrek ematen dizu ikasterakoan bide azkarragoa, efikazagoa. Eta aprobatzeko berdin. BBB eta UBIri



ez beldurrik eduki; nahiz eta 8. mailan eta... ez hartua izan ikasteko bide hori, BBBn har daiteke. Ez da ematen duen bezain zaila; ez da esaten duten adina lan egin behar. Egutero gauzak ulertzen eta ulertzen duzun hori erabiltzen, behar duzun tokira eramaten, ikasten baduzu, ZAILTA-SUN HANDIENA GAINDITUA DUZU. Gero azterketa garaian zuk berezi duzuna, zuri garrantzitsuena iruditzen zaizuna ikasten ordu gehixeago sartu eta suerte pixka batekin gainditzea ez da horren zaila. Irakasleek nondik jotzen duten ere begiratu behar da. Konturatu klasean zerekin egoten diren denbora gehiena, zer gustatzen zaien gehiena... azterketan horri buruzko galderaren bat seguruenik egongo da. Azkenik, ikasterakoan gaiak osoak ikasi, ez bestekin tartektuak. Burua horretan zentratua badaukazu, horrekin segi bukatu arte. Bukatzean dena errepasatu, badakizula zure buruari demostratuz. Gaia bukatzean haize pixkat hartu eta gero beste gaiarekin hasi.

Tx - Horrela, hain zuzen, hain argi, agertu digu Xabierrek zein izan den bere matrikula ateratzeko metodoa. Oso garbi hitz egin duela esan dezakegu. Gure partetik eskerrak eman eta gaur egun ikastolan dabiltzanei enbidoa bota besterik ez zaigu gelditzen: EUTSI GOIARI GAZTEAK!



3 URTEKO HAURRAK IKASTOLAN

Hasieran negarrak entzun baziren ere, orain barrea eta poza nabaritzen da hiru urteko haurren geletan.

Lehenengo egunetan guraso batzuen laguntza behar izan bagenuen ere egunek aurrera egin duten eran, haurrak lasaitu dira, normalizazio batean sartu garela esan dezakegu eta gaur egun aita edo amaren muxu bat nahikoa dutela gelan lasai sartzeko.

Ordutegia ere egokitzen joan da eta dagoeneko Haur Hezkuntzako edozein haurren ordutegia betetzen dute.

Haur hauen heziketan elementu garrantzitsuena JOLASA izango litzateke. Jolasa eta beste ekintzen bitartez Haur Hezkuntzako helburuak barneratzen joango dira:

SOZIALIZAZIOA, AUTONOMIA etabar.

Askenik, gure ongi etorri beroena eskea nahi diegu haur eta guraso berriei.



4 URTEKOAK UDAZKENEAN

Programazio barruan eta beste gaien artean, urtaroak aztertzen ditugu eta orain arte ikusi duguna udazkena izan da.

Hau lantzeko eta beste hainbat ekintzen artean bat, hosto eta fruitu desberdinak biltzea izan da. Horetarako egin dituen eguraldi on eta haizetsuak aprobetxatu ditugu.

Bildutako gauzen inguruan hitzegin eta izendatu. Ondoren zenbait eskulan egin ditugu: muralak, koilareak...

Eskerrik asko udazkena zure fruituengatik!!





5 URTEKOAK AUZOZ AUZO

“Auzoa” gaia lantzen hasi garenez, herriko auzo desberdinetara ibilaldiak egin ditugu.

Auzo bakoitzeko ezaugarri garrantzitsuenak bertatik ikusi eta ezagutzea izan da gure helburu nagusia.



BASERRIKO MAKETA

Bigarren mailako neska mutilek, baserriko maketa egin dugu.

Lehenengo baserri handi bat egin dugu, leiho, balkoi eta teilaturekin eta ondoan pinuak ditu, sagarrondoak ere bai.

Baserrian baratza jarri dugu, txakurraren




txabola ere egin dugu eta berarekin batera txakur bat ere bai. Ganbaran lasto antzeko gauza bat jarri dugu. Baserri inguruan basoa ere egin dugu eta horrekin batera erreka bat jarri dugu. Errekak putzu bat du eta benetako ura dauka. Belarra egiteko alfonbra pusketak erabili ditugu.

Mendiak pinotxo paperez eta tenperaz egin ditugu. Behiak ere egin ditugu kortxo eta txotxex.

Gure maketa polita geratu da animaliak jarri ondoren.

Gauza asko ikasi ditugu.





TXONDORRA

Euskal Herrian baso asko zeuden eta animaliak nahiko janari etababesarekin bizi ziren. Baina gizonak suaren beharra zuten eta txondorra egitearen ohitura gehiago zabaldu zuten.

Denborarekin zuhaitzak gutxitzen joan ziren eta abere askori gero eta zailagoa egiten zitzaion janaria aurkitzea eta euren gordeleku egitea.

Arazo horiengatik urtxintxa haserratu egin zen eta arazo honen ardura hartu zuen.




Esnatu zirenean txondarra harriz estalia zegoen, gerturatu eta animalien aztarnak ikusi zituzten. Orduan konturatu ziren basoko animaliei kalte egiten ari zirela eta hori kontutan hartuta gizonak ere bilera bat egin zuten. Denak ados jarri ziren eta handik aurrera berez eroritako adarrak hartuko zituzten txondorra egiteko



Bilera bat prestatu zuten animalia guztiek eta bertara, bakoitzak, irtenbidea nola planteatu eraman zuen. Denek ideia on bat zeukaten, hala ere, urtxintxak zuena izugarria zen.

Horra hor bere ideia: Txondorraren zuloa harriz estali eta lan horren arduraduna hartza izango zen, noski!. Gau hartan hartzak lanari ekin zion. Goizeko bost t'erdietan bukatu zuen eta seieta gizonak esnatu egingo ziren.





LETURIAREN EGUNKARI EZKUTUA.

(Txillardegik).

KRIKA

Liburua orokorrean gustatu zait, batez ere duen egitura xebleagatik. Hau da, liburua urtaro ezberdinetan banatua dago eta aldi bakoitzak Leturiaren, pertsonaia nagusiaren, bizitzaren etapa ezberdinak agertzen dizkigu. Aldi bakoitzari bere era dagokio.

Iruditzen zait Txillardegik nobela honekin jadanik zaharkiturik ziren moldeak trukatu nahiz egitura berriak sortu dituela, pertsonaia ikusmolde berria adierazten dutenak.

Hain zuzen ere, hau da niri gehien gustatu zaidana.

Gaurko pasarte honetan, kontalari den Leturiak, lehen pertsonan dihardu. Hori dela eta, berari dagokion munduaz ari zaigu. Dena den, bere barne gogo ireki, eta azaletik begiratuta, agian "bere" egoera pertsonala izan zitekeena, unibertsala egin du. Eta gizabanakoen orohar axola zaion gaiaz mintzo da, hots, bakardadeaz.

Era berean, ohar gaitezke bere barne mundua eta natura ikuspenaren erabateko adostasunaz. Batasun inpresio hori erdies-teko aukeratu dituen baliabideak ezin apropositoak dira.

Honen gain, pertsonaia eta natura erabateko elkartasunera iritsi dira, natura Leturiaren barne gogoaren isalada delarik.

BBB 3 ikasle batek

LIZARRAN ASTE BUKAERA BAT

Ikastolen Elkarteak argitaratzen duen "Ikastola" aldizkarian zetorren lehiaketa batean parte hartu genuen 6C gelakoek. Lehiaketa honetan irabazle suertatu ginen eta Lizarran aste bukaera bat pasatzea tokatu zitzaigun, Urriaren 7 eta 8 an.

Urrairen 7an, larunbata, 9 puntu-puntu denak elkartu ginen autobusa hartzeko. Autobusean gindoala zera galdetu genion Lupe andereñoari:

- Zer egingo dugu lehenengo?
- Lehenengo bodega bat ikustera joan gara, ondoren mahasti batera mahatsa biltzera eta gero Lizarrako kanpina baltzera.

Bodegara iritsi ginenean:

- A ze traktorea! esan zuen Iratik.
- Eta ze mahats usaina! Bai goxoa!

Bodegara sartu baino lehen mahatsaren azukre kantitatea nola neurtzen zuten ikusi genuen. Baita mahastietatik, traktoreetan, ailegatzen ari zen mahatsaren pisua nola kalkulatu zuten ere.

Bodegara sartu ginen eta:

- Hemen bai daudela erle pilo bat.
- Aizue, probatuko al dugu ardoa edo mostoa? galdetu zuen Naiarak.
- Seguru baietz! esaten genion batak besteari.

Guzti hau esaten ari ginela, gizon bat agertu zen. Gizon honek bodega erakutsi zigun eta erakusten zigun bitartean ardoa nola egiten den esplikatzen zigun. Lehenengo esplikatzen zigun aspaldian ardoa nola egiten



zen. Mahatsaren zumoa, mahatsa hankekin zanpatuta lortzen zen eta zumo hori mostoa da. Gero, zumo hori irakitsen utzi behar da. Gaur egun prozesu guztia hau mekanizatuta dago eta mahatsa oso osorik aprobetxatu egiten dela esan zigun.

- Begira ezazu.- esan zigun gizonak. Haziaz olio egiten da; mahatsaren haragiaz mostoa eta ardoa, eta azkenik, azalaz alkohola.
- Bai, bai, ederki aprobetxatzen da - esan zuen Anxirak.

Ardoa egin aurretik mahatsaren azukrea neurtzen da, horrela ardoak eduki dezakeen kalitatea kontutan hartzen da. Jarraian robot bat bezalako makina batek ardoa prentsatu egiten du, daukan zumo guztia ateratzeko. Mahats txuriaz ardo txuria egiten da eta mahats beltzaz ardo beltza eta gorria. Bien arteko desberdintasuna azalarekin edukitako denboran dago. Ardo gorria ateratzeko mahatsari azala lehenago kentzen zaio.

Mostoa eta ardoa azero inoxidableko kupela handietan gordetzen da.

Mostoa ez fermentatzeko produktu kimiko batzuk botatzen dizkiote eta 10⁹tan mantentzen da.

Mostoa edan eta ardoa nola egiten den ikusi ondoren, autobusera itzuli ginen eta mahasti batera joan ginen mahatsa biltzera.

Ailegatzerakoan bi mahasti mota daudela esplikatu ziguten. Aspaldian landatutakoak eta orain dela gutxi landatuak. Lehengo koetan mahats-arbolak juntu daude eta mahatsa nahi eta nahi ez eskuz bildu behar da. Gaur egungokoetan mahats-arbolak hilaran egoteaz aparte, sare antzeko batez

lotuta daude eta gainera iladak paraleloki daude eta batetik bestera traktore bat sartzeko distantzia dago. Horrela, zinta transportadore baten bidez mahatsa biltzen da traktore batera. Dena mekanizatuta dago.

Mahatsa bildu genuen eta baita jan ere, sorta bat hartzen genuen aldiko hiru edo lau pikor jan egiten genituen. Bildu ahala furgoneta batera botatzen genuen bildutakoa.

Horrela joan zitzaigun goizeko parte. Autobusera berriro sartu eta Lizarrako kanpignera abiatu ginen.

- Gogo izugarria genuen gure logelak ikusteko.

Kanpignera ailegatzerakoan galdetu genuen lehendabiziko gauza hauze izan zen:

- Zein dira gure gelak?

Lupek giltza hartu zuen eta logelara joan ginen segidan. Gelan sartzerakoan denok harrituta gelditu ginen hiruko literak ikusteko. Kasualidadez andereñoari lurrean lo egitea tokatu zitzaion ohe librerik ez zegoelako.

Motxilak utzi ondoren bazkaltzera joan ginen. Baina bazkal aurretik Nafarroako ardoari buruzko bideo bat ikusi genuen. Bazkal ondoren, kanpigneoek golf-ean aritzeko makilak utzi zizkiguten eta ordu asko pasa genituen mini-golf-ean jolasten. Oso ongi pasa genuen.

Merendatu ondoren, kanpigneo ardura-dun batek, goizean bildutako mahatsa zanpatu behar genuela esan zigun. Mahatsa kupela handi batean zegoen, bildutako guztia ez noski!. Zanpatzeko bikoteka jarri gintuzten, gerriko gorri bana jantzia genuelarik. Hasieran nazka pixka bat ematen zigun, baina gero oso ongi pasa genuen. Gainera, kupelari aldiro botatzen zioten mahatsa. Mahatsa zanpatzen genuen bitartean dantzatu egin behar genuen Nafarroako musikarekin.

Mahatsa zanpatu ondoren lortutako mostoa filtratu egin genuen denen artean edateko.

- Oso goxoa zegoen.

HATZAK BETE LAN

Arratsalde osoa dibertitzen pasa genuen afaltzeko ordura arte noski.

- Ea, denak hemen bildu. Afaltzeko ordua da. Denek eskuak garbitu eta arduradunak mahaia jartzera joan!-esan zuen andereñoak.

Afaldu eta gero:

- Benga, orain hamaikak arte jolastu eta gero ohera. Hamaika t'erdietarako lo egon behar dugu.- esan zuen Lupe andereñoak.

Baina kanpingeko arduradunak diskoteka guretzak irikiko zuela esan zion andereñoari eta honek haseran aurpegi oso ona jarri ez bazuen ere, azkenean utzi egin zigun hamaika t'erdia arte. Sorotan-bele eta horrelako musikarekin dantzan aritu ginen. Gero lotara joan ginen txintxo-txintxo.

Hurrengo egunean:

- Andereño jaiki al gaitezke?- galdetu genuen.
- Beno, pakea eman. Baina gosaltzera joan aurretik duxatu.-esan zigun.

Gosaldu eta gero kanpingetik alde egin genuen mendira Eihartzeren aitarekin. Hamar kilometro baino gehiago egin geni-



tuen. El Puy mendi tontorrera ailegatzerakoan argazki bat atera ziguten eta berriro kanpingnera itzuli ginen. Ailegatzerakoan bazkaltzeko ordua zen .Bazkaldu genuen eta gero logelara joan ginen gauzak biltzera.

Hiru t'erdietarako prest ginen etxera itzultzeko pena handiz.

Despiditzerakoan kanpingneko arduradunek ardo botila bana erregalatu ziguten eta eskerrak eman ondoren despeditu ginen. Arratsaldeko bost t'erdietarako berriro Oartzunen ginen.

Oso ongi pasa genuen eta berriro joateko prest gaude.

6C GELA





JAOTAKO EGUNAREN ETA HILABETEAREN ASMAKETA


Joko honen bidez zure lagunaren jaioteguna asma dezakezu.

Erantzuna aurkitzeko zure lagunak eragiketa batzuk egin beharko ditu.

Adibidez: suposa dezagun zure laguna Martxoaren 12an jaio zela.

- Lehenik jaiotako hilabetearen zenbakia bider 5 egin beharko du.
(gure kasuan: $3 \times 5 = 15$)
- Erantzunari 3 kendu (gure kasuan: $15 - 3 = 12$)
- Erantzuna bider 2 (gure kasuan $12 \times 2 = 24$)
- Erantzuna bider 10 (gure kasuan $24 \times 10 = 240$)
- Erantzunari bera jaiotako eguna gehitu (gure kasuan $240 + 12 = 252$)
- Eragiketa horren emaitza eskatu lagunari eta zeuk emaitza horri 60 gehitu.
Hau da gure kasuan $252 + 60 = 312$
- Ehuneko zifrak hilabetea adieraziko dizu, hau da, gure kasuan 3—Martxoa eta hamarreko eta batekoak eguna gure kasuan 12


Orain gure lana izango litzateke joko bat betetzearen arrazoia aurkitzea. Ekuazio bat planteatzeak lagunduko dizu! Norbaitek aurkituko balu Maite irakasleari ekarri mesedez.




NAHASTE BORRASTE

Margo ezazue azpiko marrazkiei, zenbaki bakoitzari kasu eginez:

- | | |
|------------|----------------|
| 1- Gorria | 4- Urdin argia |
| 2- Laranja | 5- Berdea |
| 3- Horia | |





OLATZ JAUREGI




Aldizkariko sekzioren batean parte hartu nahi baduzu, hona hemen jarraitu beharreko prozedura:

* Zure lanak izenpetua izan behar du; Izen-abizenak eta NAN zenbakia adierazi behar dituzu.

* Ikastolako helbidera bidali behar dira lanak, eta sobreak aldizkarirako dela eta zein sekziarako den adieraziko da. Edo, Ikastolako buzoian utziko da.

*Hautzaro Ikastola
TXINPART aldizkaria,sekzioa.
Elorrondo Z/G, 20180 Oiartzun.*

* Lanak jasotzeko epea, hiruhilabete bakoitzaren bukaera baino hilabete bat lehenago izango da; aurtengo ikasturtean, Otsaila bukaera eta Maiatza bukaera. Hala ere, ez azken eguna arte zai egon.



HAURTZARO IKASTOLA

Argitararen honen edizioko laguntzaile



kutxa fundazioa
fundación kutxa



gipuzkoa donostia kutxaren
gizarte-ekintza